

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegua sustatzeko ekintza lokaletarako 2020ko deialdiaren barruan Gasteizko enpresetan lan-kontratazioa sustatzeko udal programaren hirugarren ebazpeneko hutsen zuzenketa —3091 iragarkia, 2021eko irailaren 20ko ALHAOn (107. zk.) argitaratua—

I. 2020ko abenduaren 9an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak berriazko oinarriak eta deialdia Gasteizko udalerrian 2020an langabeei besteen konturako lan-kontratu arruntak egitea sustatzeko laguntzak emateko udal programarako —2020ko abenduaren 23ko ALHAO, 146. zk.—. Deialdiak 3.414.000,00 euroko zuzkidura zuen, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak finantzaturik, 2020an enplegua sustatzeko ekintza lokaletarako deialdiaren barruan —2020ko ekainaren 30eko EHAA—.

II. Deialdiaren 7. oinarrian ezarri zen eskabideak aurkezteko hirugarren epea —2021eko apirilaren 15etik ekainaren 30era artekoa— bukatu zelarik, eta, gerora, eskabideak aurkezteko epea luzatu, uztailaren 15 eta 16ra —iragarkia: 2021eko uztailaren 14ko ALHAO, 78. zk.—, 2021eko irailaren 2ko idazki baten bidez, Enplegu Ataleko teknikariek jakinarazi zuten epe barruan 541 eskabide jaso zirela, eta horietatik hirurehun eta laurogeita batek (381) deialdiko baldintzak betetzen zituztela, eta beste ehun eta hirurogeiek (160) ez.

III. 2021eko irailaren 7an egindako bilkuran aztertu eta eztabaidatu zituen eskabideak hautatze- eta jarraipen-batzordeak, eta aurkeztutako proiektuek deialdiko betebeharrak betetzen zituzten egiaztatu, horiek balioetsi eta lehentasun-hurrenkera ezarri ondoren, eskabideak aurkezteko hirugarren epeari dagokion ebazpena emateko proposamena egin zion Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari; hain zuzen ere, ehun eta hirurogei (160) eskabide ukatzea, betebeharrak betetzen ez zituztelako, eta hirurehun eta laurogeita bat (381) dirulaguntza ematea, guztira 2.187.547,17 euro.

IV. 2021eko irailaren 20ean argitaratu zen Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren irailaren 7ko ebazpena argitaratu zen, zeinen bitartez 2020an langabeei besteen konturako lan-kontratu arruntak egitea sustatzeko udal programaren hirugarren epeari zegozkion eskabideak ebatzi baitziren.

Aurreko paragrafoan aipatutako ebazpenean, B01280403 IFK duen merkataritza-enpresari 4.363,14 euroko dirulaguntza ematea xedatu zen.

V. Dossierrean jasota dagoen dokumentazioa berriro aztertu dutelarik, 2021eko irailaren 23an, merkataritza-sozietate horri emandako laguntzaren kalkulu aritmetikoan akats bat zegoela ikusi dute udal-teknikariek, eta txostena egin dute, eta laguntzen ebazpena zuzentzeko proposatu Hautatze eta Jarraipen Batzordeari, uste izan baitute B01280403 IFK duen enpresak jaso behar zuen zenbatekoa 5.463,33 eurokoa dela, 4.363,14 eurokoa izan beharrean, eta, horrenbestez, horien arteko aldea ordaintzea proposatzen da, hau da, 1.100,19 euro.

VI. Hautatze eta Jarraipen Batzordeak aztertu du udal-teknikariek 2021eko irailaren 23an egindako txostena, eta haiek antzemandako akatsa zuzendu dadila proposatu du.

VII. Aurrekari horiei zuzenbide-oinarri hauek zaizkie aplikagarri:

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2. artikuluan honela xedatzen da: “Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.”

Agindu horren inguruko jurisprudenzia-doktrinak, baita aurrekari zuzenari, hots, 1958ko uztailaren 17ko Administrazio Prozeduraren Legearen pareko artikuluari dagokionez ere, nabarmendu izan du errakuntza materialen zuzenketak jarduera-eremu oso zehatza duela, beti ere zaindu beharrekoa, baldin eta erakundea desnaturalizatuko ez bada. Zehazki, Auzitegi Gorenaren 1995eko ekainaren 2ko epaian (RJ 1995/4619) honela jaso zen:

“En efecto, la doctrina jurisprudencial de esta Sala, plasmada, entre otras, en las Sentencias de 18 de mayo de 1967 (RJ 1967/2488), 24 de marzo de 1977 (RJ 1977/1809), 15 y 31 de octubre y 16 de 13 noviembre de 1984 (RJ 1984/5099, RJ 1984/5172 y RJ 1984/5776), 30 7/10 de mayo y 18 de septiembre de 1985 (RJ 1985/2325 y RJ 1985/4196), 31 de enero, 13 y 29 de marzo, 9 y 26 de octubre y 20 de diciembre de 1989 (RJ 1989/619, RJ 1989/2655, RJ 1989/2353, RJ 1989/7247 y RJ 1989/8981), 27 de febrero de 1990 (RJ 1990/1521), 16 y 23 de diciembre de 1991 (RJ 1991/9760) y 28 de septiembre de 1992 (RJ 1992/8022), tiene establecido que el error material o de hecho se caracteriza por ser ostensible, manifiesto e indiscutible, implicando, por sí sólo, la evidencia del mismo, sin necesidad de mayores razonamientos, y exteriorizándose prima facie por su sola contemplación (frente al carácter de calificación jurídica, seguida de una declaración basada en ella, que ostenta el error de derecho).”

VIII. Horrenbestez, kasu honetan dosierrean dokumentazio berririk sartu ez denez, balorazio-irizpideak aldatu ez direnez, 2021eko irailaren 7ko ebazpenaren zentzua aldatu ez denez eta antzemandako akatsa kalkulu-eragiketa aritmetiko batean gertatutako akatsa denez —eta ebazpena irmoa ez den neurrian—, udal-teknikariek eta laguntzak emateko hautatze- eta jarraipen-batzordeak proposatutako moduan alda daiteke.

IX. Deialdian ezarritako prozeduraren arabera, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak du eskabideak ebazteko eskumena.

Horrenbestez, udal-aurrekontuetan nahikoa kreditu-zuzkidurarik badagoenez, hautatze- eta jarraipen-batzordeak egindako proposamena aintzat harturik eta eskumenak eskuordetzeko 2020eko abenduaren 9ko erabakia dela medio, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak hau

Ebatzi du

Lehen. Zuzentzea Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegua sustatzeko ekintza lokalentarako 2020ko deialdiaren barruan Gasteizko enpresetan lan-kontratazioa sustatzeko udal programaren deialdiko hirugarren epeari zegozkion eskabideak ebatzi zireneko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren irailaren 7ko ebazpena, zeinek, onetsitako eskabideen artean, B01280403 IFK duen merkataritza-enpresari 4.363,14 euroko laguntza adjudikatu baitzion, “4.363,14 euro” zioen lekuan “5.463,33 euro” izan behar baitu.

Bigarrena. Aurreko paragrafoan adierazitakoaren ondorioz, B01280403 IFK duen enpresak jaso beharreko aldearen zenbatekoa (1.100,19 euro) 2021/0823.2411.480.15/R aurrekontu-partidan dagoen saldoaren kontura jaso beharra dago, zein 2021eko aurrekontuan soberakin gisa sartuta baitago (6. oinarria), eta horiek ordaintzea onestea.

Hirugarrena. Laguntzen onuradunek deialdiaren oinarrietan ezarritako betebeharrak betetzen ez badituzte, bertan behera utzi ahal izango dira laguntzak, eta, ordainduta badaude, jasotako diru-kopurua —osorik nahiz zati bat— itzultzeko eskatuko zaie.

Laugarrena. Ebazpen honen kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, zuzenean aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Nolanahi ere, aldez aurretik aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori espresuki edo ustez ebatzi arte—. Ondoren, berariazko ebazpena ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da bi hilabeteko epean, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, edozein unetan aurkeztu ahalko da, araudi espezifikoaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko irailaren 28an

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta
Turismoaren Saileko Administrazio Orokorreko teknikaria
IGNACIO CEPEDA CRESPO*